

N

.U.

H A M A B O S K A R I A

2001eko otsailaren 23a VI. urtea

Usurbil, 107. zenbakia

**Juan Luis Zabala: "barruko
beharrei erantzunez 9
liburu idatzi ditut"**

Aizpurua



Zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu gurean duzu aukera!

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25
Telf: 943 36 12 20

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALFA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.

KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALFAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ,
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENIZAT, TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK, EGUNTEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

Egin zaitez Noaualako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

**%10eko
beherapena**

Aldatz kioldenda

**Mahuka
jantzidenda**

**Pauma Haur
jantziak**

Truke jantzidenda

**Usurbil optika
denda**

Intza ileapaindegia

**2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua**

Antxeta jatetxea

Patri jatetxea

Zumeta jatetxea

Txerrimunik ordainetan



Gure etxeko txikien ordua ere iritsi da. **Garazi Artolak** otsailaren 17an bete zituen urteak, **Mikel Artolak**, berriz, otsailaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoentzuek partez.



Ezkondu zinetela 45 urte bete ziren pasa den otsailaren 11n. Zorionak **aifona Roman eta amona Simona** zuen familia guztiaren partez. Segi horrela, umoretsu aurrera!



Zorionak **Garazi Andres Moto**. Otsailaren 25ean urte bat beteko duzu. Muxu haundi bat ama, aita, Alnizte eta Nagoreren partez.



Zorionak **Josu!** Otsailaren 23an etxeko txikiak bi urte beteko ditu. Muxu haundi bat eta zorionak etxekoentzuek partez.



Zorionak amona **Anjela!** Martxoaren 1ean zure urtebetze eguna ahalik eta ondoen pasa dezazula opa dizugu. Maitasunez, zure familia osoaren partez muxu haundi bana.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarrri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: martxoaren 9an
Ekartzeko azken eguna: martxoaren 2a

Hildakoak



2001-02-15
Candelaria Alargunso
Illarramendi
78 urte
Urdaiaga

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino
 Asteburutan Asteburutan

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta iaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Martxoa

Astel.	Astear.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Bai, esan

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erizantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 47 09 76
- Iturralde farmazia 47 09 76
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.jalgi.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Juan Luis Zabala idazlea

Zer irizten?



Mendian behera ala gora?

Andatza Mendi taldea

Luz Ardiden, Formigal, Candanchu, Baqueira, Astun, Gourette, egun hauetan asko entzuten diren izenak dira. Denboran atzera egiten badugu, duela urte batzuk izen hauek gure herrian ia ezezagunak ziren. Gaur egun, ordea, nork ez ditu izen hauek noiz edo noiz entzun edo ezagutu?

Negurarekin batera, kirol hau modan jarri denik ez du inork zalantzan jartzen. Asko hone-taz jabetzen ez badira ere, leku hauetan nahikoa kirol xelebre bihurtu den aisialdia dugu skia, izan ere, kirol honen inguruan negozio ugari sortu da eta ematen den kontsumoa ere ugaria da.

Egia da mendian egiten den kirol bat dela, baina egun oso bat eskiatzen ibili eta gero, edozein nekatzeko modukoa da.

Kirol honek eragiten dituen nekealdi horiek, ordea, Skiestazioetan dauden taberna eta dendetan asetu ahal ditugu gaur egun. Izan ere, hau dena aisialdirako azalera haundiko hipermerkatu batean egiten baita.

Hipermerkatu horietan tabernak, dendak eta jende

masifikatua aurkituko dugu, dena kontsumitzeko egitura-tua.

Hau guztia gure hausnarke-tarako bide izan daiteke. Guk, honako galdera hau egiten dizuegu: hau al da mendian kirola egitea? Batzuek baiez-koa esango dute, beste batzuk, aldiz, ezetz diote.

Gure proposamena hau da: leku horiek, hots, kontsumoa eta negozioa areagotze-ko eta etekin ekonomikoak bilatzen dituzten egitura horiek ahal den eta gutxien erabil-tzea.

Mendiak eskertuko digu eta mendian egin daitezkeen hainbat kirolerako ere onuragarria izango da, kirolak duen bizitasuna eta edertasuna are nabarmenagoa izango delako. Ildo honetatik, zera esan nahi dizuegu; edozein txokotik mendian gora egitea eta, noski, gero baita behera ere, izan ere, etxera itzultzea baita beti garrantzitsuena.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Batasuna eztabaida prozesuaren azken fasea

Eztabaidarako oinarriko txostenak aukeratu gero, dagoeneko laugarren eta azken fasea martxan dago. Bateginez izenpean aurkeztutako bi txostenak izan dira nabarmenki hautatuak, bai Euskal Herrian eta Usurbilen ere bai.

Orain txosten hauei zuzenketak eta ekarpenak egiteko garaia ireki da. Epe hau otsailaren 10etik martxoaren 2raino luzatuko da eta egun hori baino lehenago Herriko Batasuna taldeari helarazi behar zaizkio ekarpenak. Egindako ekarpenak sailkatu ondoren, herri guztietako batzarretan eztabai-

datu eta erabakiko dira. Ondoren, Batasuna prozesuari amaiera emanaz, erakunde berriko egitura osatzeko karguen hautaketari ekingo zaio. Guztia ekaina aldera amaitzeko asmoa dago.

Norbaitek txostenak eskuratu nahi baditu Aitzaga, Zendoia eta Benta tabernetan dauka aukera. Ekarpenak ere bertan uzterik izango ditu Batasuna batzordearen izenean.

Eztabaida honek duen garrantzia bereziki azpimarratuz, Batasuna batzordeak parte hartzerantz animatzen du abertzale

Senideak-en Batzar Nazionala

Erdi ezkutuan edo manipulatu bada ere, inork azken hilabeteotan komunikabideetan ateratzen diren etengabeko salaketak jarraitu baditu, honez gero konturatu da gure senitarteko preso eta errepresaliatuen egoera eta bizi-baldintzak okerrera egin dutela nabarmen.

Hori dela eta, haien eskubideen defentsan aspalditxo egiten ditugun ahaleginak biderkatuz behartuta gaude. Alde batetik, ahal dugun neurrian informazioa zuzenez ematen saiatuko gara. Horretarako, Euskal Herri mailan hileroko argitaratutako dugun aldizkaria banatuko diegu herriko talde eta elkartei eta,

baita, interesa duten guztiari ere. Horrekin batera, hileko azken ostiraletan frontoi atzetik abiatuta egiten dugun enkarteladari bultzada berezia eman nahi diogu, hau da, jende gehiagoren parte hartzea ezezik, presoen eskubideen alde askotan beren atxikimendua eman diguten elkarte eta taldeetako kideena ere lortu nahi dugu.

Bestalde, Senideak elkarteak Batzar Nazionala burutuko du datorren igandean, otsailak 25, Donostiako Kursaal aretoan. Ondoren, eguerdiko ordu batean, egingo den enkarteladan parte hartzerantz gonbidatzen zaituztegu.

EH-k euskara bultzatzeko egiten duen ahalegin eskasa ezkutatu ahi du

Euskara mailan lan egiten zuen funtzionariari esker aipamen berezi bat jaso ahal izan du Usurbilek. UEMA-k (Udal Euskaldunen MAnkomunitateak) 2000. urteko balantzean zera dio ataletako batean: *"ongi lan eginaren ondorioa da UEMAk euskal gizartearen aldetik jaso duen babes zabala... Eta hori ez da kasualitatea, azken urte hauetan egindako lanaren ondorioa eta bultzatutako elkarlanaren ondorioa baizik.*

"Nolanahi ere, UEMAREN 2000. urteko egitasmoan ez zeuden aurreikusita aipatu arazo judizialak eta bertan lagatutako ordu, energia eta ahaleginak izan dituzte, jakina, ondorio txarrak. Izan ere, eragin beharreko beste esparru batzuk - Usurbildik egindako ahaleginak salbu - ukitu gabe geratu baitira: osasun zerbitzuak, Eroski, Kutxak, Bake epaitegiak..."

Orain EH-k Euskara, Kultura eta Gaztediarako teknikari postua atera nahi duen horretan, (lehen euskara teknikariaren betebeharrak egiten zituen langilearen lana ez errekonozitu arren) lanpostua atera arte, bere gain hartu ditu betebeharrak.

Jokaera honen ondorioak berehala jasan behar izan ditugu. Badirudi EH-ko zinegotzi taldeak udalaren izenean, informe baten bitartez UEMARI euskararen egoera azaltzeko orduan ez duela benetako egoera zein den azaldu nahi. Egia ezkututzen du EPA (Educacion Para Adultos) eta Hastapen Profesionaltako zenbait irakasleren euskara egoera zein den azaltzen ez duelako informe honetan.

Ezkutaketa honi esker, udalaren euskara egoera ezin hobea dela, eta bide batez UEMA-k ondo ikusten ez duen teknikari lanak egiten zituen langilearen bazterketak ondorio txarrak ez dituela izan agertu nahi dute.

Informe honekin, EH taldearen euskara politika akatsez josia dagoela agerian gelditzen da gure ustez. Nahiz eta EH-k herriaren eta UEMAREN aurrean bere euskararen aldeko lana ezin hobea eta handia dela azaldu, agerian da gero ez direla bere ondorioak ikusten.

Usurbilgo EAJ-PNV

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Oria ibaian bisitari berriak

Otsailaren 15ean Oria ibaiari buruzko datu interesgarri batzuk irakurri nituen egunkarian.

Gaur egun, ingurugiroa gehiago zaintzen da; industrietako hondakinak ere kontrolatuta goak daude eta horren ondorioak ibai eta erreketan nabarmentzen hasiak gara. Egun ibaian arrainak ikusten dira eta ibai inguruetan hegaztiak. 60. hamarkadan, aldiz, ez zegoen paisaia eder hauetaz gozatze-ko aukerarik. Izan ere, urte horietan, kutsaduraren ondorioz, ibaian behera apar geruzak jaisten baitziren ur zikinekin batera. Gainera, hau gutxi balitz, ibai bazterretan animalia hilak edonon aurki zitezkeen.


Ibaiaren garbitasuna eta kalitatea ona denez, garai bateko arrainak bueltatzea lortu nahi da.

Otsailaren 13an Lasarten izokin txikiak bota ziren uretara. Izokin txiki hauek martxoaren amaieran itsasoan bukatuko dute, eta bidaia luze bat egin ondoren urte batera edo hiru urtera, berriz bueltatuko dira batzuk gure Oria ibaira arrautzak jartzera.

Zenbat bueltatzen diren Orbeldi presan kontrolatzen dituzte basozainek, kontatu eta berriz askatuaz.

Beraz, gure auzotik pasa beharko dute izokin hauek. Oraingo debekatua dago

arrain hauen arrantza, baina aurten arrantza baimentzeko aukera eztabaidatzen ari dira.



KALEBERRI

Jokin Zubiaur



Aurrerapenak adina traba

Ez da asko bake-epaitegia lekuz aldatu dutela. Urte hasieran izan zen egoitza aldatzea. Egia esan, horrelako bulego publiko batek udaletxean behar luke, lehen bezala, baina beren arazoak izango zituzten. Gainera, ni ez naiz kexu, etxe aurrean baitut justiziarekin lotutako paperak betetzeko tokia.

Dena den, bake epaitegiaren funtzionamenduan euskararen erabilerak izan dituen aldaketek jardungo naiz. Igara da pixka bat udalak "apelliduetan abizendu" kanpaina martxan karri zuenetik. Baina, *Noaua!* aldizkariak berak jakinarazi zigunez prozesua luzatzen: 6 hilabete inguru, udal-letxean paperak bete eta "ce"-

ak "ka" bihurtzerako; tartean papelen bidaia luzea, Donostia, Madril, buelta berriz ere...

Orain berriz, udalaren ahaleginean ondoren, euskaltzaindiaren laguntzarekin (abizenak euskaratzeko liburua argitaratu zuen) eta Eusko Jaurlaritzak legea aldatzeaz batera segituan aldatu ahal izango ditugu



deiturak Kale Nagusia 4an.

Baina, euskararen normalizazioak traba asko ditu, eta oraindik ofizina horretan ez dago idazkari euskaldunik. Gustora egon gintezke ordea, zeren Donostiako Justizia Jauregira joaten bagara ez dugu euskararen arrastorik topatuko: idazkariak ez dakite euskaraz, ez dago epailetak euskaraz egiteko aukerarik, eta egunkari batean irakurri dudanez abokaturen batek gaztelaniaz egitea onartzen ez badu isuna jartzen diote.

Honela, udalak euskararen alorrean orain arten egin duen lanaz konturatzen naizen neurrian konturatzen naiz oraindik ere trabak badaudela.

KALEZAR

Urko Manterola



Bidegurutzeetan uste baino arazo gehiago

Aspaldi honetan zalaparta ugari izan da gure auzo honetan; batetik, Illarramendi ondoko etxe horien konponketa lanak izan genituen; bestetik, ditxosozko "gas-natural" hori. Hau guztia gutxi balitz, obra hauek guztiak bukatuta, Errebal-txiki ondoan etxeak eraikitzen hasi dira.

Dena berritzeko sartu den joera honetan, lehengo batean oraingo bide berritik joan beharrean bizkartzoko zubi zaharretik sartu nintzen eta bi bideen bidegurutzera iristean, "ceda el paso" adierazten duen kartela ikusi nuen eta lurrean "stop".

Inor ez zetorrenez, bere horretan pasatu nintzen, baina

deskuidoan, baten bat bertatik igaro izan balitz eta bi kotxeak parez pare tokatu, une horretan zer egin ote beharko nuen galdetu nion nire buruari.

Honekin, bide batez, zera adierazi nahi dut: bidegurutze berri hau ondo seinalizatuta badaogo ere, ospital txikiko bidegurutzean dagoen ispilua golpez josia dagoenez, ondoko bidetik kotxeren bat badator, ikusteko oso gaizki dagoela.

Kontu hauek guztiak, kalean ikusitako lagun eta auzotarrek esanak dira. Baina, inork kexuren bat edo kronika hau egiteko

gairen bat balu, badaki zer egin behar duen; idatzi edota niri esan.



ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



Aldaketak handik, landaketak hemendik

Herriko erdigunera hurbiltzen garen bakoitzean, bertako obrak direla eta, dagoeneko zaratarra ohitu gara. Baina, zer pentsatuko zenuke gure auzoan ere zarata entzungo bazenu?

Aspaldiko partez, azken aste hauetan ezohiko burrunda entzun dugu Mahaspildegia elkarte inguruan. Izan ere, udalari eraberritzea "ahaztu" ziztzaion leku honetan zerbaite berezia gertatu baita.

San Inazio auzokoak ere ez dira hain erraz libratu zarataz, izan ere bertara joateko kalean udaleko langileen joan-etorriak etengabeak izan baitira.


Itxura denez, kale horretan udalak konponketa lanetan

hasteko asmoa dauka; hau dela eta, hasieratik ondo hastea erabaki du bertako zuhaitzak lekuz aldatuz.

Argazkian ikusten duzun bezala, gure auzoko leku "zoragarri" honetan San Inazio-ko zuhaitzak landatu dituzte.

Eskertzekoa da udala Atxegaldez gogoratu izana hau guztia egiteko orduan, baina horrelako ekintzak eta asmo berriak ez dute askorako balio leku honetan hainbat gauzek bere horretan jarraitzen dutela ikustean.

Ondo hasitako gauzek bukaera ona izaten omen dute, hala dio behintzat esakerak... Baina, egunen batean hori ikustera iritsiko ote gara ?



SANTUENEA

Agustin Esnaola



Lagun batekin elkarrizketa

Kaixo Lourdes, Zer moduz auzoan?

- Ondo, oso ondo. Ez nuen uste auzo honetan horren ondo biziko nintzenik. Oso lasaia da, beno, trenaren zarata eta Ingemarko zarata entzuzera ohitu beharra dago, baina orokorrean oso lasaia da. Orain dela urte eta erdi herritik jaitsi nintzela eta ez naiz batere damutzen.

Aitortu behar dizut, hasiera batean beldur pixka bat banuela. Badakizu, ... etorkinak bizi diren auzoa, "Barrio chino"ren izena zuen auzoa, marginala izan dena eta beste hainbat kontu. Baina nire lagunak esaten diet, Santueneak

abantaila asko dituela. Begira, kotxea etxe aurrean aparkatzeko arazorik ez; erosketak egiteko hiru denda daukazu; zerbait hartu nahi duzula? lau taberna daukazu; afaltzera joan nahi duzula? prestatzeko gogorik ez daukazulako? Tragokara jaisten gara edo sozio lagun batekin Ibai-ondo elkartera joaten gara.

Denetarik daukazu, umeentzat eskola-aurea ere bertan baitago. Zer gehiago? Kiroldegia? hamar minutu oinez egin eta bertan nago. Ezin da gehiago eskatu.

- Beno, neska ez da horren besterako izango! Zure lagunak ez zaituzte sinistuko!

- Baietz! Auzo honetan bizitzen jarri garenetik benetan hori da ni eta nire senarrak sentitzen duguna. Eta gehiago esango dizut, aukera duzunean, *Noaua!*n idatzi ezazu artikulua bat esan dizudana kontatuz.

- Eskarrik asko aukera hau emateagatik.



URDAIAGA

Alazne Begiristain



Agur bero bat

Larros bat du Usurbilek politena, politena ta zera zu Urdaiaga bihotzeko San Esteban

Honelaxe dio kantuak. Hau esaten du abestiak. Gure auzo polit hau larros batekin konparatzen du kantu honek. Larros bat izan daiteke, bai, Urdaiaga. Baina, esan beharrean nago larros honek petalo bat galdu berri duela, bai, Kandelari ari natzaizue.

Ez nuke inor tristetu nahi, baina tarte honetan aipatua izatea merezi duela uste dut. Nolabaiteko omenalditxo bat merezi du kronikatxo honetan

hitz batzuk eskainiz, omenaldi xumea bada ere.

Kronika hau idazteko orduan, askotan aipatu izan da auzoko ermita, hemen izaten diren ezkontza ugariak direla medio.



Baina ez dut uste inoiz ermita honen ardura nork duen pentsatzeko denborarik hartu dugunik. Kandelari zen ermita hau garbi mantentzeaz arduratzen zena, kanpaiak jotzen zituena, apaintzen zuena...

Orduak eta orduak ematen zituen lan hauetan. Nork ez du ikusi izan Kandelari igande goizean ermitaren alde batetik bestera bere pausu txikian bixkor-bixkor?

Ez dut uste ez auzoan, ezta herrian ere, inork ahaztuko duenik. Egindako lan guztiarengatik, eskerrik asko eta agur bero bat bihotz-bihotzez.

AGINAGA

Jubilatuen bazkaria

Oskar Santamaria



Beti bezala, oraingoan ere badirudi herriko adinekoek ondo pasatzeko parada izango dutela datorren martxoaren 4an, igandean. Izan ere, Aginagako Arrate egoitzan bazkari goxo-goxoa prestatzen hasiak baitira. Beraz, badakizue, hain gazte ez zareten aginagatarrek baduzue zer egin egun horretan.

Hala eta guztiz ere, ez pentsa Arrate egoitzan adinekoak baino ez direla ibiltzen. Izan ere, azkenaldi honetan "gazte-xea" baitirudi; bertan, besteak beste, hileko asteburu batean dardo jokoaren liga jokatzeko baita.

Aipatu ligan 16 gazte lehiatzen dira buruz buru eta, esan behar, txapelketa hau nahikoa parekatu doala, lau partaide lehenengo postuan baitira puntu berdinduta; **Joseba Larburu, J.J. Manzidor, A. Murua eta A. Lizeaga**, hain zuzen ere.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Galdorri parean egin duten "makropabilioia-
ren" inguruan hainbat zuhaitz

landatu dituztela. Lehengo aldean dotore asko gelditu da berau, hala ere ez zen zaila lehengo itxura hobetzea.



ZUBIETA

Garaian garaikoa

Karmele Urdanpilleta



Badirudi aurtengo negua joan zaigula. Hotzik, izotzik eta elurrik eta erauntsirik gabekoa, denok dakigunez. Ondo-ondotik datorkio udaberria garaia baino lehentxoago, lehen sahasak loretan, han hemenka haritzen bat hosto berdetan eta kanpoak berde. Neguak, ona izatekotan, bere izenari dago-kion izaera ere izan beharko luke ezta? Sudurrak gorrituta, muturrak zorrotzuta eta gu kuzkur edukitzen dakien horietakoa; goitik beherako astindua hartu, izkutuak garbitu, zomorro eta begiz ikus ez litezkeen gainerako bizidun kaltegarriak menderatu eta beren orekan eta neurrian eusten dakien negu gorria.

Aurtengoa horrelakoa ez izaki

izango du nekazariak udaberri eta uda aldera pesteen berri, hasi patata zomorro, har, sitsa eta zorri, burukatu beharko du eta aspaldian izkutan gordean izan dituen zaharren jakintza atera beharko du aurre egingo badie, garbi eta pozoin ez kutsatu gabe landarediak eta elikagaiak naturaltasunez eta bere garaian bilduko baditu.

Honen alde apustu egingo duten nekazari naturazaleek badute gainera, egun beste kontrario handi bat gure uste-tan, dena azkar eta erraz egiten omen duen teknologia. Ba al du teknologi honek begirunerik naturaren orekarenganako? Naturatik bizi behar dugu derigo-
rrez eta honek bere zikloak eta

bere garaia diti, errespetatu beharrekoak, gainerakoan ez dugu (eta hau badakigu) geure baitan onik izango, dena manipulatuta eta nahi bezala erabiltzen badugu ez dugu bada orekarik eta osasunik zainduko, ez gorpuztekorik ez psikikorik. Gizateria artifizia bat bilakatzen ari ote gara? Teknologia aipatzean gainera gauza haundi eta erraldoia datorkigu gogora, dena haundi egitearena, gero eta gehiago edukitearena. Gogoetatxo honen ondoren, hor doa nire galdera: asko edukitzea baino ez al da hobe garen eta duguna kalitatezkoa izatea eta horrekin konforme eta pozik gure ahaleginak beste goragoko bilaketetan ematea?

Artzabalgo etxebizitzaren konpentsazio proiektua

Usurbilaren babes ofizialeko etxebizitzak lortzea "garesti" dagoela nabari da. Artzabalgo lurretan egingo diren etxebizitzetatik 48 babes ofizialekoak izango dira eta zozketarako izena emateko epea ireki dela ere entzun da herriko kaleetan. Udalak zurrumuru hori gezurtatu nahi du, etxebizitzaren proiektua onartu eta lizentzia eman ondoren jarriko baita guztia martxan.

Plan partziala eta arau subsidiarioen aldaketa behin betirako onartuta badaude ere, Artzabalen etxebizitzak egiten hasi ahal izateko eginbeharrak ez dira oraindik amaitu. Pasa den urtarrilaren 30eko gobernu batzordean konpentsazio proiektuari behin behineko onespina eman zitzaion. Udalak eta Larraín S.Ak egin zuten hitzarmenaren arabera, udalari aprobeitxamenduaren %10a dagokio, hau da, 120 milioi pezeta. Horregatik, diru kopuru horren arabera, ondasun eta obra

hauek eskuratuko ditu udalak:

- 30 milioi pezetako balioa duen Artzabal baserria.
- 9 milioiko aurrekontua duen Artzabal baserriaren aurrealdea eta teilatuaren konponketa.
- Babes ofizialeko lau etxebizitza eraikiei, bere lau garaje eta guzti, dagokien dirua: 51 milioi pezeta.
- Beheko solairuetako batean kokatutako 200 m²-ko azalera duen merkataritza lokala: 30 milioi pezeta.

Horrez gain, azken lokal honen ondoan beste 100 m²-ko lokal bat eskuratuko du udalak udalarena zen lurzati baten trukean.

Datozen egunetan urbanizazio proiektua aurkeztekotan dira, eta martxoaren hasieran, berriz, etxebizitzaren proiektua. Hauek denak onartu eta lizentzia eman ondoren irekiko da babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako izena emateko epea.



Bat-batean

Haurtzaindegia

Udala eta Udarregi ikastola datorren ikasturterako haurtzaindegia bat jartzeko ahaleginetan dabilta. Egitasmo hau nahikoa aurreratu da, baina datozen egunetan dena lotuta izango dutela aurreratu zaigu. Haurtzaindegia hau Kalezarko lehengo Udarregi ikastolan kokatuko da eta bertan lau hilabetetik 2 urte bitarteko haurrak egongo liriteke. 2-3 urtekoak, berriz, Agerialden izango dituzte beraien ikasgelak. Aurrematrikulazioen eta gainontzekoen berri aurrerago izango duzue.

Gure Elkartearen egoitzako taberna

Santueneako Gure Elkartearen zahar egoitzako taberna daraman pertsonak ez jarraitzeko erabakia hartu duela eta, datozen bost urtetan taberna hau hustiatzeko lehiaketa irekia egingo da. Baldintzak udalean eskatu ditzaizkezue eta proposamenak aurkezteko epea *Noaia!* aldizkarian eta bandoetan argitaratzen denetik 15 egunera amaituko da. Bestalde, Kaleberrin dagoen Gure Pakea zahar egoitzakoek ere martxoan utziko dute taberna eta datozen asteetan taberna honen hustiapena eskuratu nahi dutenentzat lehiaketa irekiko da.

Kale Nagusia, USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Zendoia enea
Taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak,...

PATRI

J A T E T X E A
E u n k z k r k
l f r k

N 15 217 33 1
33 27 25 (G U K)

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

L A B E - G O X O

Usurbilen turismoa garatzeko plangintza estrategikoa aurkeztu dute

Datozen 10 urtetan Usurbilen turismoa garatzeko plangintza estrategikoa egin du Prospektiker-ek. Turismo arloan, gaurtik aurrera garatu behar diren ekintzak identifikatu eta garatzea izan da honen asmoa. Herriaren diagnosi bat egin, bertako talde, elkarte, enpresa etab.-en eritziak jaso eta herritarrei eta kanpotarrei inkestak egin ondoren osatu dute plangintza.

Herritarrei egindako inkestaren arabera gehiengoa turismoa bultzatzearen aldekoa da. Adin ezberdinetako jendearekin hitz egin ondoren ia %90a honen alde agertu da. Hala ere, horretan errekurtsok inbertitzearen aldekoak diren ala ez galdetzerakoan %18-20ak beste lehentasun batzuk badaudela erantzun du. Salbatore eliza, Kalezar eta sagardotegi eta jatetxe eskaintza dira hiri gune ezagutuenak eta nekazal turismoaren, jatetxeen eta sagardotegien eskaintza, sagardoaren museoa eta eliza, berriz, bisitariak eta turismoa erakartzeko elementu aipagarrienak.

Etorkizunari begira, ordea, turismoa garatzeko egiteko ugari dago Usurbilen plan estrategiko honen arabera. Alde batetik N-634 errepidea hobetu eta barneko bideak mantendu eta seinalizazioak hobetu beharra ikusten dute. Beste aldetik, ingurunearen



erabilera planak egin eta mendi bideak seinalizatzea aholakatzen dute. Azkenik, hiri-gintza planak egokitu eta nekazal guneak mantentzearen aldeko gomendioa egin dute plan hau garatu dutenek.

Usurbilek eskaintza bereziak bultzatu behar lituzke

Guzti honekin batera, ostatu modura baserrietan eskaintza bereziak egitea eta nekazal turismoa bultzatzeko kanpingak sortzea gomendatzen dute. Aisialdi eskaintza gehitu beharra dago eta Usurbilek badu ibilbide ezberdinak sortzeko aukera. Horregatik, Prospektiker-eko arduradunen esanetan Usurbilek eskaintza bereziak bultzatu beharko lituzke: nekazal turismoak, baserri eskolak, kultura eta kirolari lotutako ikuskizunak, sagardoaren museoa, ibaiaren etxea, artisautzak jarduerak...

2010. urte bitarteko plangintza estrategiko hau garatzeko, ordea, dirua behar da. Prospektiker-ekoek egin duten aurreikuspenaren arabera, beraiek proposatzen duten guztia gauzatu dadin 1.800 milioi pezeta beharko lirateke. Hauetatik, 863 milioi udalak jarri beharko lituzteke, 812 milioi Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eta 145 eragile pribatuek.

Udaleko ordezkarien esanetan plan estrategiko hau gauzatzea ez da erraza izango. *"Momentu honetan hainbat inbertsiotan sartuta gaude eta turismoa garatzeko inbertsio haundiak oraingoz ezin dugu egin. Hala ere, badirudi kanpoko jendeak Usurbil ez duela ezagutzen, eta horregatik turismo bulegoetan etab. gure herria ezagutzera emateko bitartekoak jarriko ditugu".*

Josu Aranberri

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 2635- 36 33 48
Mobila: 609 888021



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Juan Luis Zabala: “Behar pertsonal batzuei erantzuteko hasi nintzen idazten”

Azkoitiarra da, baina Santuenean bizi da. Laneko kontuek ekarri dute gure herrira, baina ziur bertan ez zenutela askotan ikusiko. Berak ez du hori ukatzen eta azkoitiarra dela argi utzi digu gainera. Euskal filologian lizentziatua, Euskaldunon Egunkariako kultura saileko erredaktorea da, baina afizio eta gogoz idazlea dela aitortu digu. Bederatzi liburu argitaratu ditu eta “Agur Euzkadi” izan da horietan azkena.

Usurbildar askok ez dakite Juan Luis Zabala idazlea Usurbilen bizi dela.

Lehendik usurbildar batzuk ezagutzen nituen, gehien bat kazetaritza mundutik, eta hauek kalean ikusi izan ditut. Joxan Artzerekin topo egin nuenean ezagutu ninduen eta nolabaiteko ongi etorri bat ere eman zidan. Ni hemen bizi naizela zabaltzekotan literatura munduko norbaitek aireratuko zuen. Euskal literaturaren mundutik kanpo ez naiz oso ezaguna, ez baitnaiz telebistako pertsona ezaguna. Seguraski Usurbilen ni ikusi nauten askok ez dakite idazlea naizela eta elkarrizketa honen bidez enteratuko dira asko eta asko.

Nor da Juan Luis Zabala?

Lanbidez kazetaria eta afizio eta gogoz idazlea den azkoitiar bat. Usurbilen bizi naiz, baina zirkunstantziek hala agindu dutelako, ni azkoitiarra baitnaiz. Literaturak bultzatuta hasi nintzen filologia ikasten, izan ere literaturarekin lotutako karrera bat hartzekotan iruditu zitzaidan hori zela gertuen zegoena. Kazetaritza da, berriz, nire lanbidea. Kazetaria sentitzen naiz baina ez da hori



nire pasioa, ez da benetan nire gustokoa den arloa. Hala ere, bere alde onak ere ikusten dizkiot, eta horrekin ere gozatzen dut batzutan.

Euskal filologian lizentziatua, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan irakasle izana, Euskaldun Egunkariako kazetaria zara orain. Baina nola sartu zinen literatura munduan?

Neure kasa. Eskolan zaletu eta nolabaiteko behar pertsonal bati erantzuteko hasi nintzen idazten. 20 urte inguru nituenean bestela esan ezin nitzazkeen gauzak esateko behar bat izan nuen eta orduan zaletu nintzen. Gero poliki-poliki bidea egin eta presa haundirik gabe bederatzirentzako liburu idatzi ditut barruko beharrei erantzunez.

Eleberriak idatzi dituzu, ipuinak ere bai, poesian ere saikera bat egin duzu... zer duzu gustokoen?

Gehien gustatzen zaidan jeneroa eleberria da, bai irakurtzeko eta bai idazteko. Nahiago izaten dut mundu batean sartu eta hor jokatu.

Ipuinak eta olerkiak denbora tarte laburra idazteko modukoak dira eta beste atera bide bat dira. Eleberriak ezin dira idatzi noiznahi eta nolannahi, horren inguruan lasaitasun bat, denbora bat eta giro bat sortzea ezinbestekoa da, eta hori ez da beti posible izaten.

Orain arte argitaratutako lanetatik bat aukeratzeko esango banizu?

“Galdu arte” izan da nire liburuetan gehien saldu, gehien irakurri eta gehien zabaldu dena, baina kasu hartan liburuko gaia zela eta aurretik espero izateko modukoa zen horrelako zerbait gertatzea. Nire azken lana, “Agur Euzkadi”, ez da gehien saldu dudana liburua, ezta harrera beroena izan duena ere, baina uste baino harrera hobea izaten ari da eta hori pozgarria da.

“Agur Euzkadi” zure azken liburuan Lauaxeta olerkigilea berpizten duzu. Zer dela eta?

Liburua idatzi eta gero konturatu naiz hainbat esperien-

tzia eta momentu daudela ideia horren atzean. Oso garrantzitsua izan zen Lauaxeta fusilatu zutela 60 urte bete zirenean Euskaldunon Egunkarian egin nuen erreportaia zabala. Orduan gerturatu nintzen Lauaxetarengana eta orduan sortu zen liburu hau idaztearen ideiarenekin aurreko momentua.

Zein da zure azken liburua-ren helburua?

Abertzaletasunaren inguruko gogoeta egiteko modu bat da liburu hau. Nire ustez abertzaletasuna oso modu ezberdinetan bizitzen da Euskal Herrian toki batean edo bestean, baita norberak bizi izan duen bizimoduaren arabera ere. Nire kasuan, abertzaletasunaren inguruan oso ikuspuntu ezberdina dut orain 15 urterekin nuenarekin alderatuta. 15 urterekin Lauaxeta eta Lizardi, adibidez, oso urruneko erreferentziak ziren, nirekin zerikusirik zutenik ez nuen sentitzen, baina orain bai. Nire buruari galdetzen diot zer lotura dagoen Lauaxeta eta nire artean, zertan den nire abertzaletasuna... kezka hori dago liburu honen atzean. Izan ere Lauaxeta eta Lizardiren eta gaur egungo idazleen kezka antzekoak dira.

Aurrera begira proiekturik ba al duzu esku artean?

Egia esan orain Euskaldunon Egunkarian nabil burubeltzari eta ez daukat eleberri bat egiteko denborarik. Ideiaren bat badut, baina argumentua zehaztu gabe daukat oraindik. Horregatik hurrengo eleberria egiten hasterako denbora dexente pasako dela uste dut. Azken aldi honetan ez daukat asti haundirik, baina tarteka ipuin, testu solte edo olerkiren bat idatziko dut. Nahikoa lan bada lan egin eta gero egunero irakurtzeko eta literatura-ren mundua nolabait jarraitzeko tarte bat hartzea.

Idazle izatetik bizi al daiteke?


Bernardo Atxaga bai. Hor hiru maila ikusten ditut nik:

batetik, Atxaga bakarra da nik uste, berak nahi duena idaztetik bizi maila normal eta ertain batean bizi daitekeena. Gero nahi dutena idazteaz gain enkarguak egiten dituztenak daude: telebistarako gidoiak, kazetaritza enkarguak... idaztetik bizi dira baina maila ertainetik behera. Azken mailan beste ofizio bat dugun idazleak gaude, tarteka denbora libre atera behar izaten dugunak ahal dugun tokitik idazteko.

Euskal literaturaren egoera nola ikusten duzu momentu honetan?

Ondo dago kalitatez eta kantitatez, idazle berriak sortzen dira, badago mugimendua, produkzio gero eta abertatsagoa ere bai, gustu guztietako liburuak daude... baina kurlea da. Alde skaldunak ez gara estetik erdarazko koz promozio bide raundiagoa du jena iristeko. Hor da ka neurri handi tean. Promozio aldetik ondo dago euskal literatura baina gehienbat ikastetxe eta euskaltegien bidez saltzen da. Hortik aurrera eten egiten da euskaraz irakurtzeko joera. Merkatu librean ez du indarririk hartu.

Josu Aranberri



txar o ar tze
ILEAPAINDEGIA

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste,3 Tel. 37 16 85

lurgintza - Gasa Berokuntza
J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

RAMON
BARCENILLA

- .Pikor-pinturaeta gotele lanak
- .Papereztatze-lanak
- .Pintura-lanak or har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

Eusko Jaurlaritzak nekazal lurrak erosi ditu Zubietan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko

Eusko Jaurlaritzak hipodromoa eta realeko instalazioen artean dauden 50 hektareako nekazal lurrak erosi ditu Zubietan. Erosketa honek 2.300 milioi pezetako kostua izan du eta oraingoz etxebizitzak egitea ezinezkoa bada ere, lurzoru urbanizagarri bihurtu ondoren babes ofizialeko 2000-2500 etxebizitza egitea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa.

490.000 metro karratu horiek urbanizatu ezin diren lurrak dira. Oraingoz ezin da bertan etxebizitzik eraiki, nekazal lurrak baitira, baina egitasmo hau gauzatzeko Donostiako udalari lur hauek urbanizagarri bihurtu ditzan eskatuko dio Eusko Jaurlaritzak. Honela, babes ofizialeko 2000-2500 etxebizitza egitea da beraien asmoa.

Lur horiek erosteko 2300 milioi pezeta bideratu ditu



Eusko Jaurlaritzak, metro karratuko 5.000 pezeta ordaindu baitizkie nekazal lur horien jabeei.

Zubietako hipodromoa eta realaren instalakuntzen artean dagoen lursail honen erosketak ezustean hartu ditu Donostia eta Usurbilgo udalak eta Zubietako Herri Batzarra. Joxe Antonio Altunaren esanetan zerbait mugitzen ari zela sus-

matzen zuten, baina guzti honen atzean Eusko Jaurlaritzaren egongo zenik ez zuten uste. *"Duela hiru hilabete inguru Donostiako udalari galdetu genion zer ari zen mugitzen hor, baina ez zegoela ezer esan ziguten"*. Lursail hori urbanizagarri bihurtzea dagokion Donostiako udalak ere ustekabean hartu zuen Eusko Jaurlaritzak Zubietan lur horiek erosi dituenaren berria.



Isidro Zaldúa eta Xabier Arregi

Prentsaren bidez iritsi zaigu berria oraingoan ere. Eusko Jaurlaritzak lur-sail handiak erosi omen ditu hipodromoko aldean etxeak egiteko, eta ez gutxi ere: 2.000tik gora etxe, alajaina!. Tarteka horrelako albisteak jasotzen ditugu, eta ikaratzeko modukoak dira.

Lehendik, Diputazioa eta

Donostiako Udala ere arituak dira horrelako operazioak bultzatu nahian. Batzuek eta besteek nekazal lurra eskura eduki orduko ez dute onik porlana sartu gabe. Erasoa gogorra da. Auzitan jartzen dute gure herriaren etorkizuna.

Zubietan planifikatzen diren operazio hauek guztiak badute elkarren antza. Denetan eskema beretsua errepikatzen da:

1. Operazio ilunak dira. Lur-jabe batzuekin tratuak egiten dira lurrak erosteko. Inork ez daki ezer garbirik, eta zurrumuruak zabaltzen dira. Batzuek, bizkorek, negozio politak egiten dituzte.

2. Herria, kasu honetan Zubietan, ez da aintzat hartzen. Herri-tarren iritziak bost axola du horrelakoetan. Herri-Batzararen egitekoa hutsaren hurrengoa da. Iritzia, onenean, itxura egiteko eskatzen zaigu.

3. Planifikatu gabekoak dira. Lurrak erosi dira, bai, baina zonalde horretan ez dago etxeak eraikitzerik! Indarrean dagoen ordenamenduak ez du horretarako aukerarik ematen. Berdin zaie. Plangintza orokorra egokitu, eta kitto. Lurra-

ren kalifikazioa aldatu behar bada, aldatu egiten da, eta kitto. Planifikazioa eta aurreikuspena? Bai zera! Interes espekulatiboaren pagotxa, hori dago horren atzean.

4. Itxura jatorra ematen zaie. Beti dira interes sozial handiko proiektuak. Errealak, esate baterako, futbol-instalakuntzak handitzeko proiektua aurkeztu zuenean, hala esan zuten, izugarri interesgarria zela gizartearentzat. Guztiz beharrezkoa. Oraingoan, konturatu al zarete nola esan duten babes ofizialeko etxeak egingo dituztela? Noski, nola ez bada? Hori da jatorrasuna, hori. Baina, bene-benetan, gizartearen interesa al dago horren atzean?

5. Ez da azterketa seriorik egiten. Badirudi etxeak egitea berez dela ona. Premia omen dago. Etxeak eginda prezioek behera egiten omen dute eta etxebizitzaren arazoa arindu egiten omen da. Bai? Horrela al da? Zer oinarri dute uste horiek? Etorkizuneko aurreikuspenik ez da egin batere. Ez dakigu zein izango den eskualde honetako egoera hemendik best-hamar urtetara. Eta orain arteko esperientziak garbi erakutsi du, askotan, negozio-iturria eta dirua inbertitzeko modua direla horrelako ekimenak. Bai, behintzat, besterik egiten ez bada.

Gauzak horrela, Zubietako Herri-Batzarreko kide batzuk oso kezkatuta gaude gai honekin. Oraingo hau ez da jokabide isolatua. Aspalditxotik ikusten genuen honen arriskua. Eta jokoan dagoena herri-proiektua da. Zubietan etorkizuneari zergizko den erabakitzen ari dira batzuk, arinki eta axolagabe. Bien bitartean, zubietarrok nahi eta ezin ari gara: geure herria indartu nahi eta ezin, zubietarrok ekimenez etxeak egin nahi eta ezin! Aurrera egiteko modu bakarra dago: zer izan nahi dugun lehenbailaen aztertu, elkar hartu eta ez etsi.

Aezkoa eta Usurbil senideturik

Pasa den otsailaren 11ean Aitzaga Kultur Elkartek Aezkoako Irati irratitari eguna eskaini zitzaion. Pelota partidak, Baigorriko dulzaineroak, irrintzilariak... denetik izan zen egun honetan. Komunikabide honek jasaten duen egoera benetan larria denez, babes emateaz gain laguntza morala eskaini nahi izan zitzaion. Hau dela eta, haran honetako jendea ezagutzeko aukera izan genuen bertara

hurbildutako usurbildarrok, eta benetan hunkiturik irten ginen jasaten duten hizkuntz, giza eta kultur egoera nolakoa den jakin ostean. Dena etsipena ez zen izan, ordea, eta harreman berri hau iraunkortasunez bermatzea besterik ez da falta. Bazkalostean, 60 lagunengain, Luzaideko **Angel Antziburu** aitona bertsozaleak honako bertsoak kantatu zituen:

Goizean jeiki ezgeroz
nere barruan zabil,
urruti zagon edo
ote zagon hurbil
txoferra hor zabilen
erne eta abil
bihotza eni poztu zaut
ikusten Usurbil.


Gure herritik hurbil
baitago Baigorri,
handik Usurbilerat
baitira etorri,
Garazi alde hartako
toki eder horri,
nik orai nahi nuke
agur bat igorri.

Irati irratikoak
arduratu dira,
gu ere Luzaidetik
pozik torri gira,
Ahezkoako jende onak
segitu baitira,
etzan bidaia eginen
horiek ez balira.

Paregabekoa baita
irratiazen lana,
hurbildu behar ginuke
denek haiengana
gu haurrak gira eta
horiek dira ama
mintzairarentzat dute
eiten ahalegina



Pasa den otsailaren 6an telebistak, musika kateak etab. lapurtu zituzten Zubiaurrenea 3an dagoen Baymue dendan. Goizeko laurak aldera denda dagoen etxebizitza blokean bizi den bizilagun batek soinu arraroak entzun zituen, eta lapurretan ari zirela ikusita ertzainei deitu zien. Hauek Usurbila iristerako lapurrek ihes egin zuten, baina hauetako bat Orio inguruan atxilotu zuten ibilgailuarekin bidean zegoen ertzain bat harrapatzen saiatu ondoren.



Dorrea eraberritu dutela ospatzeko ekitaldi txiki bat egin zen pasa den otsailaren 10ean. Zenbait kanpai errepika entzun, dorrearen zehaztasun batzuk eman eta Irri abesbatzaren eskutik "Usurbilgo elizaren horma" abestia entzuteko aukera ere izan zen. Hala ere, dorre honetan izan da aldaketa bat. Eraberritze lanak hasieran erlojua ez aurrera eta ez atzera gelditu zen, baina azken asteetan zer ordu den jakin nahi dugunean lasai begiratu dezakegu dorrean.

JUANTXO
burdindegia
kalenagusialOUsurbil
370008



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

**Jarri
hemen zure
publizitatea**

Martxoaren 3an Aerobic Maratoia izango da lehenengoz Oiardon

Datorren martxoaren 3an arratsaldeko 16.30etatik 18.15ak bitartera, herriko zein inguruko aerobic-zaleek hitzordu berezi samarra izango dute Oiardo kiroldegian. Urtero legez, eta Buruntzaldeak antolatuta, Aerobic Maratoia izango baita. Gure herrian lehenengoz izango den ekimenak, *"kirol hau egiten dutenei ondo pasatzeko parada eskaini nahi die"*.

16 urtetik gora izatea eta kirola egiteaz gain, ondo pasatzeko gogoia izatea. Hauetxek dira martxoaren lehenengo asteburuan izango den Aerobic Maratoian parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarrak. Herriko kiroldegian zein Buruntzaldeako gainontzekoetan eskuragarri daude izen emateko zerrendak; hala, 500 pezetaren truke, ia bi orduz gustuko kirola egiteko aukera izango da Oiardon. Antolatzailleen hitzetan, *"normalean maratoi hauek hiru orduko iraupena izaten duten arren, Usurbilen lehenengo aldia izanik, lasai-lasai hasi nahi izan dugu, inor beldurtu ez dadin"*.

Gainera, argi utzi nahi izan dute ez dela derrigorrezkoa maratoi osoan zehar aritzea. *"Bakoitzak ahal duena edo nahi duena egin dezala. Norbaitek ordu betez bakarrik aritu nahi badu aerobic egiten, libre da ondoren maratoi-tik irteteko"*.

Oiardoko Aerobic Maratoian zortzi irakasle arituko dira, bakoitza ordu erdiz. Gainera, irakasle hauek osaturiko epaimahaiak hiru kirolari onenak sarituko ditu. Gainontzeko



parte hartzaile guztiek ere izango dute sariren bat etxeratzeko aukerarik, guztien artean izango den zozketaren bidez, hain zuzen ere.

maratoi guztian zehar irauten duena izaten da irabazlea. Datorren martxoaren 3koak, ordea, ez du halakorik izango.

Lotsa eta herritarrak begira izatea. Hauetxek dira herriko aerobic-zaleek maratoin parte hartzeko dituzten arazo nagusiak. Honen jakitun, antolatzailleek sarrera sinboliko bat ezarriko dute maratoina ikustera sartu ahal izateko. Hala, *"ikusleak aerobic ikastera datozenak izatea nahi dugu, ez saltseatzera edo besteren kontu farra egitera datozenak"*.

Bultzatzaileen beldur nagusia, berriz, *"jendea ez animatzea da"*. Izan ere, dagoeneko Aerobic Maratoia ez da gauza berria, inguruko herrietan ere hau egiteko aukera zabala dago. Hala eta guztiz ere, herrian lehenengoz izanik, bertakoak, behintzat, animatuko direlakoan dira. Mutirik! hauetxek dira gutxien animatzen direnak. Ea, bada, datorren martxoaren 3an Oiardoko pista aerobic-zaleez gainezka topatzen dugun eta, tartean-tartean, mutilen bat edo beste ere ikus daitekeen.

Amagoia Mujika

1991an, Oiardo kiroldegia irekitzearekin batera, 15 pertsona animatu zen aerobic-a egitera.

Pixkanaka kopuru hori gorantz joan da eta iaz jasan zuen gorakada garrantzitsuenak.

Aurtengo ikasturtean 60 bat pertsonak hautatu du aerobic-a kirol gisa. Mutirik bakarrik animatu da.

Talde ezberdinak osatu dira, bata 40 urteren inguruan eta bestea 20 urtetik gorakoekin.

Askok dantza soilarekin lotzen badu ere, kirol benetan osoa da, ia gihar guztiak lantzen baitira.

Sariak sari, estreinakoz herrian izango den ekimenaren bultzatzaileek argi utzi nahi izan dute *"epaimahaiak ez duela inor kaleratuko"*. Antza denez, zenbait maratoin epaimahaiak partaideak kaleratzen ditu pixkanaka. Hala,



Eskubaloia

Iaz Euskal ligatik jaitsi ondoren, mutilen jubenil eta kadete taldeak mailaz igotzeko bide onean ditugu dagoeneko. Lehen fasean zailtasun haundirik gabe nagusitu ondoren, igoera fasean euren multzoetako lehenengo postuetan kokatuta daude. Bestalde, jubenil mailako nesken taldea federazio txapelketa jokatzeko ari da. Momentu honetan bigarren postuan dira Pulporekin berdintuta.



Futbol aretoa

Futbol aretoko talde bakarra zegoen iaz, aurten, berriz, lau. Asteburuetan zer ikusia izaten da Oiarde kiroldegian. Azken asteburuan ere, hiru taldek etxean jokatu dituzte euren partidak eta denetariko emaitzak izan dira. Txotxek garaipena eskuratu zuen eta bederatzigarren postuan dago. Multzo bereko Pello Arraindegia taldeak atsedena izan zuen. Hauek, azken postuan daude bi partida irabazi eta 13 galdu ondo-



Pelota

Andatzpe-Peña Pagolako pelotariak lehen mailako klubaren arteko udaberriko txapelketa jokaten ari dira. Senior mailan taldeko azken postuan badaude ere, jubenil eta kadete mailan beren multzoetan lehen postuan dira herriko pelotariak. **Asier Portu eta Asier Arruti** jubenilek partidu guztiak irabazi dituzte. **Jon Irazustabarrena eta Ibai Orenak**, berriz, partidu bat galdu dute eta hiru irabazi.

ren. Beste multzoan, berriz, Antxetak berdinketa lortu zuen eta sailkapenaren erdi-erdian daude, zazpigarren postuan. Jubenil mailan dauden Aitzagako neskek ere ez dabilta makal. Azken partida jokatu baino lehen hirugarren postuan kokatuta zeuden. Hala ere, bigarren postuan zegoen La Salle taldearen aurka sailkapenean aurrera egiteko aukera paregabea galdu zuten Aitzaga taldeko neskek.

Emaitzak

Futbola neskak

Otsailak 10-11

Zumaiako **4** - Usurbil F.T **0**

Otsailak 17-18

Usurbil F.T **2** - Alde Zaharra **3**

Eskubaloia

Otsailak 10-11

Usurbil K.E. **18** - Arrate **28** (2.N.)

Donibane **12** - Usurbil K.E. **11** (ju.m)

Usurbil K.E. **15** - Bera bera **23** (ju.n.)

Donibane **17** - Usurbil K.E. **19** (k.m)

Otsailak 17-18

Usurbil K.E. **27**-Aloña Mendi **24** (ju.m)

Pulpo **14** - Usurbil K.E. **14** (ju.n)

Usurbil K.E. **21** - Hondarribia **18** (k.m)

Futbol aretoa

Otsailak 10-11

Pello Arraindeg. **3** - Laskorain **7**

Easo **5** - Antxeta **7**

Larramendi **6** - Txotx **5**

Mundarro **1** - Aitzaga **5** (Ju.n)

Otsailak 17-18

Txotx **4** - Inter C **2**

Antxeta - **5** Inter B **5**

Aitzaga **0** - La Salle **3**

Hondartzako futbola

Otsailak 10-11

Aginaga Sag. **9** - Atl. Medellin **2**



kafe berezia

San Esteban kalea, 8

TLF 36 27 70

20170

USURBIL



HEIKTEN

stok eta kate, l...
konkretu, et...

TEL 33 217

Euskalpresoketxera!





Odola: guztion arazoa, guztion esku dagoen konponbidea

Martxoaren 5ean urteko bigarren odol emanaldia izango da herriko anbulategian. Urtean zehar herritar asko inguratzen da emanaldi hauetara, baina ez pentsa horiek nahikoak direnik. Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak hiru urtetan 8.000 odol emale berri lortzeko kanpaina bati ekingo dio martxoan.

Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak 23.000 odol emale ditu gaur egun. Egunero 120 odol emalek beren odola ematen dute Gipuzkoan ogitarteko bat eta edateko zerbaiten truke. Kopuru hau haunditzea da, ordea, elkarte horren nahia. Datozen 3 urteetan 8.000 odol emale berri lortu nahi dituzte (gutxienez 2.500 urtean) eta horretarako egitasmo berri bat martxan jarriko dute martxoan.

Izan ere, odol falta guztion arazoa da eta ez pertsona talde batena. Noizbait besteren odola behar izatea guztioi gerta dakiguke eta nahikoa odol izateko ahalik eta odol



emale gehien izatea litzateke onena.

Odola ematea ekintza garrantzitsua dela gizartean zabaltzeko, didaktika materiala banatuko da herrietako ikastetxeetan. Irakasleek odola ematearen garrantzia zein den erakutsi eta eritxetara odola heltzeko bide bakarra hau dela jakinarazi nahi zaie ikasleei Sabin Ucelay elkarteak lehendakariaren esanetan. *"Gauza ez da ikastetxeetan odol emale berriak lortzea, baizik eta ikasleek honetaz gogoeta bat egitea*


nahi dugu. Gero bakoitzak hartuko du bere erabakia".

Usurbilen ere, badago odola emateko aukera. Urtean zehar emanaldi hauek antolatzeaz arduratzen den talde bat badago eta emanaldi bakoitzean elkarteak anbulantzia bat etortzen bada ere, odol emale bakoitzari deitu eta dena prest edukitzeko nahikoa lan izaten dute. Beraz, badakizu, odola eman nahi baduzu ez galdu aukera hau, martxoaren 5ean 19.30etatik 21.00etara anbulategian zain izango dituzu.

TX
E **ITEGI**

INTX E EZI K

r t z . , 2 T L . 3 3 7 1 2



Igandetan ganba-ziri mundialak!

SERIGRAFIA
T A N P O G R A F I A

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

TABERNA-JATETXEA



EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

TXURRUT
TABERNA



t mus k ts n

San Esteban Iruken, 1
Tel: 943 36 00 80

Squash-eko pista bat kendu eta giharketa gela haundituko da kiroldegian

Kirok patronatuak squash-eko pista bat kendu eta giharketa gela haunditzea erabaki du. Gela hau txikia gelditzeaz gain, bertan dagoen makinaria zaharkituta dago eta giharketa gela haunditzearekin batera makinaria berria jarriko da. Horrez gain, azken honen gainean dagoen gela ere haundituko da.

Gaur egun squash-eko bi pista daude Oiardo kiroldegian eta hauen jarraian dago giharketa gela. 12 urte pasa dira kiroldegia ireki zutenetik eta denborak agindu ditu egin beharreko aldaketak. **Iñaki Yurramendi** Kirol Patronatuko zuzendariaren esanetan hasieran squash-ean jende asko ibiltzen zen baina azken urteetan beherakada bat nabarmendu dute. *"Bien bitartean giharketa gelan leku gutxi dago eta makinaria zaharkituta gelditu dela ikusita gela hau*



haunditu eta makinaria berria ekartzea erabaki dugu".

Horretarako, squash-eko pista bat kendu eta giharketa gelak hartuko du pista horren tokiak. *"Oraingo makinaria guztia ez dugu kenduko, baina giharketa gelaren azalera haunditzean toki berrian makinaria berria jarriko dugu".* Horrez gain, giharketa gelaren gainean dagoen gelak

ere zabalera haundiagoa izango du. *"Aerobik-ekoak ibiltzen diren gela hau ere ez da oso haundia eta squash-eko pista kendu behar dugunez gela hau ere zabaldu egingo dugu".*

Guzti honek sei milioi pezetako aurrekontua izango du eta uztailaren bukaeran, kiroldegia ixtean hasiko dira aldaketa hauek burutzeko lanak.

Nafarkobi S.L.-k egingo du udal aldizkaria

Urtilaren azken asteartean egin zen gobernu batzordean udal aldizkaria Nafarkobi enpresak egitearen erabakia hartu zen EHren aldeko 3 boto eta EAJ-PNVren aurkako boto batekin. Bi proposamen zeuden: Nafarkobi enpresarena bata eta *Noaua!* Kultur Elkartearena bestea. Herrikoa izatea eta proposamena merkeagoa izatea ziren

Noaua! K.E.ren proposamenaren alde positiboak, baina daukan esperientziagatik (Etxarri Aranatz, Hernani, Astigarraga eta Altsasuko udal aldizkariak egiten ditu), lan metodologia erabat argia eta eraginkorragoa izateagatik eta maketazioa eta formatua ezberdina dela ikusita udal aldizkaria egiteko ardura Nafarkobi enpresari ematea

erabaki da.

Udal aldizkari hau hiru hilabetean begin iritsiko da herriko txoko guztietara. 16 orrialde izango ditu euskaraz eta lau, berriz, erdaraz. Egunkari formatua izango du eta koloretakoa izango da. Bertan, udaleko berriak, udal erabakiak, kultura eta kirol arloko berriak, herritarren kolaborazioak, herria ezagutzeko txokoak



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa




TXIRIBOGA

TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n tu k



Xabier Pikabea



- Aseguru egilea
- Euskara zalea

Ekintzak hausten ditu haitzak

Euskara aspalditxo zatekeen desgertua. Azken gizaldi honen hasieran, mordo batek sinatuko zukeen gaurko egoeran, bederik, ikustearren. Orduko sasoi hartan ez zeukan itxura ederrik, herioaren arnas mehetan zegoela. Bizi-puntu ahulaxka hari basarritarrek eta elizako giro batek, batez ere, eutsi zioten; zenbait etxetan bai, jakina, gordetzen zen euskara, baina hor ere galtzera zetorren; ez zitzaion ikusten etorkizunik eta esperantzarik. Eta esperantza gabeko etorkizun bati nola, bada, aurre egin?

Euskara amildegira zihonan abiada bizienean espaziorik gabe geratzen ari zelako. Debekua ezarri zitzaion bai ikastetxeetan, bai erakunde publiko eta administrazioetan, bai elizaren hainbat alorretan... honetara baztertzera eta zokoratzen behartuz; eta hau guztia honela zedin, hara orduko agintarien jokabide bihurri bezain ankerra: euskarari debekua, eta erabiltzeagatik zigorra.

Baina herrian aurre egin zien erasotzaileei: beldurrak zokoratuz, isiltasuna hautsiz eta ekintzak bideratuz. Eta jokabide hark ezin pentsa ahalako ondorio onak ekarri zituen. Orduko optimistek ere ez zuten pentsatu ere pentsatuko, gaur, XXI. mendeko hasiera honetan, Durangoko azoka ospetsuan, euskal literatura hain biziki, indartsu eta bikain agertuko zenik; ez zuten sumatuko, nola bai, egin berri den Bizkaiko bertso-ixapelketa arrakastatsuan hainbeste gaztek parte hartuko zuenik; ez zuten pentsatuko horko partaideak emakumeak ere izango zirenik.

Gauzak horretara, euskarari gaur, hala-ko etorkizun-zirikitu bat ikusten zaio; jarrai dezagun aurrera, lozorrorra gabe; egin diezaiogun ekintzari, ekintzak hausten eta zultzen baititu haitzak; ekintzak gauzatzaren gure desirak.

Zerbait maite izateko, ezinbestekoa beraren ezagutza; ezin izango genuke bihotzean gorde, buruak eragindako izakirik osatuena eta liluragarriena izanda ere, bera ezagutu gabe; maitasunaren nahitaezko baldintza ezagutza da; ezagutzari datxekio.

Euskal herria nahi izateko ere, lehen-lehenik bera ezagutu behar da; beraren izate horren muina: euskara. Euskara baita Euskal Herriaren (euskara herriaren) sustrai: bera gabe ezin, inolaz ere, Euskal Herririk.

Hona hemen, Garzon epailearen amorraren arrazoi nagusia; edo bestela esanda, AEK-k egindako pekatu larria: euskara irakastea: Euskal Herriaren sustrai-zimentariaren ezagutza ematea.

Euskarak eman diezaioke edozeini Euskal Herriko kulturaren berri; euskarak,

batez ere, euskaldunon nortasun eta kon-dairaren berri; bera da euskaldunon infor-matzailerik zintzoen eta jatorrena. Bera antzinasunarekin batzen gaituen zilbo-reste-lokarri.

Eta honek guztiak, jakina, Euskal Herria ezagutaraztea, eta aldi berean maitasun-erneak sortzea dakar; honek guztiak euskaldunon aberria maitatzeko, aberetzale izateko eta euskal herria gogo izateko ernamuin-pujak sortzea dakar; eta hau guztiz pekatu larria da: barkaezina. Halaxe zen duela ehun eta berrogeitamar urte. Halaxe, frankismoaren garaietan; eta gaur-gaurko "sasi demokrazia" honetan ere, halaxe gertatzen ari da; pekatu benetan larria: bai espagnolentzat, bai frantziarentzat.

Aspaldi honetan euskararen aldeko keinu oro arbuatzen eta erasotzen ari dira; eta beraien esanetan demokrazian oinarrituz, nahiz giza eskubideen kontrako jarrera maltzurrenak erabili.

Ez dute ezertan errespeturik. Hego-haize zakarrenak eragina hor dabilza gailen, ahobero, nahi dutena esaten, eta zernahi hura egiten. Begira, bestela, Nafarroa aldera: Nafarroako gobernuari, besteak beste.

AEK-k egindako traiektoia edo ibilbi-dea, guztiok kontuan edukitzeko modukoa da. Boluntarismo hutsez aspaldi hartan hasitako lana, gaur Euskal Herri osora hedatua dago, beraren altzoan milaka eta milaka pertsonen gure hizkuntza ikasi duelarik.

Orduan, jakina, eskarmentu haundirik gabe, baina egunetik egunera beren buruak eskarmentuagoak eginez, aditua-goak eginez. Izango da alderik aurreko hartatik gaurkora metodologian, testuinguruan eta gainerakoan. Eta hau guztia su eta gar lanean aritu direnengatik izan da. Beraie, hortaz, nire zorionik beroenak.

Eta Garzon epaileak, gobernu espagnol-espagnolakin bat eginez, euskaldunok alfabetatzeko eta euskalduntzeko koordinatzailea legez kanpo utzi nahi du. Kriminalizatu nahian dabil ETA-rekin parekatuz. Euskaldunon sustrai nagusia hondoratu nahian, bost eta bi ahaleginetan.

Ez dakit hemendik aurrerako euskararen etorkizuna noiz artekoa eta nolakoa izango den. Ez dakit gaur bezala arnas mehetan iraungo duen. Ez dakit guztiz indartsua aterako zaigunik ere. Hipotesi guztiak balizkoak eta ahalgarriak izan ohi dira. Baina ziur dakidana hauxe da: herriak euskaraz bizitzeko saiamenak egiten dituen bitartean ez dela galduko; bestela Euskal Herriari izena aldatu beharko zaio: beste deitura bat eman.

Lehiaketa




Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Tragoxka tabernan bi
personentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



...eta erantzuna



106.aleko irabazlea: Aloña Azpiroz Eizmendi

Esanak esan

Ezer, inor

- Zer nahi duzu? **Ezerre***
- Zer nahi duzu? **Ezer***
- Zer nahi duzu? **Ez ezer***
- Nor ikusi duzu? **Inor***
- Nor ikusi duzu? **Ez inor***

Horrelako erantzunak entzuten dira hainbat galde-
retan, batez ere euskaldunberrietan eta zenbait eus-
kaldun garbitan ere.

Ezko testuinguruetan, perpausetan, aditzak berak
eramaten du "ez" partikula; baina aditza desager-
tzean, derrigorrezkoa, orduan, "ez" partikula gehi-
tzea.

Esateko:

- Zer nahi duzu? **Ez** dut **ezer** nahi: ezer ez.

- Ikusi al duzu inor? **Ez** dut **inor** ikusi: inor ez.

Beraz, okertzat jo behar ditugu hasieran emandako
aditz gabeko erantzunak: ezerre*, ezer*, ez ezer*, inor
eta* eta ez inor*.

Erantzun enfatikoetan, edo bestela esanda, eran-
tzuna indartzeko, "ere" partikula tartekatzen da: ezer
ere ez, inor **ere** ez.

Ohar berezi modura, kontuz, batez ere, erantzune-
tan ezerre* hori erabiltzearekin; euskararen kaltetan
barrabasa bezala zabalitzen ari baitzaigu.

Eta bukatzeko, hauxe bakarrik: ez egin **ezer inori**
norberak nahi ez duenik; areago euskarari, zure ama
hizkuntzari.

Besterik gabe, ondo izan eta biharhurrngora arte.

Agenda

OTSAILAK 23 ostirala

- **Senideak-en enkartelada** frontoi atzean arratsaldeko 20.00etan.

OTSAILAK 24 larunbata

- **Inauteri eguna.** Gaia: euskal mitologia, sorginak eta inkisizioa.

OTSAILAK 25 igandea

- **Alejandro Tapiaren pintura erakusketa** ikusteko azken eguna Udarregi zaharreko aretoan.

OTSAILAK 26 astelehena

- **"Jainkoaren bizikizuna berreskuratu beharra" hitzaldia** emango du Xabier Andonegik sakristi gainean arratsaldeko 18.00etatik aurrera.
- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko

errotondan arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 3 larunbata

- **Aerobic maratonia** Oiar-do kiroldegian arratsaldeko 16.30etatik 18.15etara.

MARTXOAK 5 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.
- **Urteko bigarren odol emanaldia** izango da herriko anbulategian arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara.

OHARRAK

- ✍ **Irakasle espezializatuek klase partikularrak ematen dituzte** Usurbilen bertan. DBH, Batxilergoa,

zientziak nahiz letrak. Esperientzia. Interesa duenak deitu 943 36 52 89 telefonora (Koro).


- ✍ **Neska bat behar da etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko.** Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauez).

- ✍ **Kabalgata ekitaldian piszinako gauzez betetako motxila bat galdu zitzaigun** frontoian. Aurkitu duenak 943 37 27 76 telefonora dei dezake.

- ✍ **Rossignol markako snowboard tabla salgai.** 152 zentimetrokoa eta fijazioekin. 30.000 pezeta. Telf. 943 36 51 80

- ✍ **Emakume batek** asteleneretik ostiralera ordu pare batez **lan egingo luke.** Deitu 943 36 16 71 telefonora.

- ✍ **Duela 15 egun beheko erloju hau aurkitu zuten kalean.** Urre kolorekoa (agian urrezkoa) eta Citi-cen markakoa. Galdu duena udaltzaingora azaldu dadila.



MAHUKA

BEHERRA DENAKI... %50 ean

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etorbate kalea, 3 - TEL. 943 36 01 04




Usurbil Autoak, S. C. L. Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Koadernatu 2000.urteko Noaua! guztiak (81-103)

Zein dira eman beharreko pausoak?




□ Hartu 2000. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (81-103) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara, Laurokera edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2000. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.

□ Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, berdin, besteok bezala.

□ Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Alzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

AGINAGA



Aginaga, Telf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan


Egin txotx!

herriko

Tolare

Sagardotegietan!

ILLUNBE



Txokoalde, Telf; 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

iruin



Zubieta, Telf; 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Telf; 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.

URDAIRA



Aginaga, Telf; 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.